

***BILBAO EKINTZA EPEL-EN “KONTRATAZIORAKO
LAGUNTZEN” PROGRAMARAKO DEIALDIA***

***LANBIDE EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO ZUZENDARI
NAGUSIAREN 2019KO OTSAILAREN 28KO EBAZPENAREN
ESPARRUAN. HAREN BIDEZ, ARGITARA EMATEN DA
ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZETARAKO 2019KO
DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA (58. EHAA, 2019/03/25ekoa)***

Bilbao Ekintza EPEL Bilborako ekonomia- eta gizarte-aberastasunaren sorkuntza sustatzen duen udal-erakundea da, Bilboko Udaleko Garapen Ekonomiko, Merkataritza eta Enplegu Sailari atxikita dagoena; horretarako, hiria inbertitzeko leku erakargarri gisa sendotzen du eta enpresak sortzen eta hazten laguntzen du, laneratzeko aukerak hobetuz.

Bilbao Ekintza, EPELen helburuen artean, honako hauek daude:

- Enpresak erakartzea, sortzea eta haztea eta enpleguaren sorrera sustatzea.
- Bilbo hiri berritzaile eta garapen ekonomikoaren dinamizatzaile gisa bistaratu eta kokatzea.
- Ekintzaileentzat eta enpresetarako garapen- eta aukera-espazio berriak sustatzea.
- Ekintzailetzan eta kultura ekintzailearen sustapenean berritzailea izatea.
- Hiriko garapen ekonomikoan eta sozialean esku hartzen duten eragileekin lankidetzak eta aliantzak ezartzea.
- Jarduera ekonomikoa eta soziala sustatzea, proiektu berritzaileen bidez.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2019ko otsailaren 27ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2019ko diru-laguntzen deialdia onetsi zuen. Erabakia Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2019ko otsailaren 28ko ebazpenaren bidez argitaratu zen 58. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 2019ko martxoaren 25ekoan.

Deialdi horren helburua, bere testuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan enplegu-politikaren tokiko dimentsioa indartzea da, 2020rako Enpleguaren Euskal Estrategiaren helburuen esparruan, eskualdeko garapenarekin loturik enplegua sortzeko ahalmena aprobetxatze aldera.

Deialdiak, “2. mota – Kontrataziorako laguntzak” izeneko diruz lagundu daitezkeen proiektuen barruan, helburu hau duten laguntzen kategoria jasotzen du: “babes ekonomikoa ematea Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa izena emandako langabeak tokiko enpresek merkatu arruntean kontratatzea errazteko. Horretarako, hainbat jarduera abiarazi eta gauzatuko dituzte tokiko erakundeek beraiek nahiz beren mendeko erakundeek”. Era berean, “3. mota – Enplegu-sorreran eragina duten toki-garapeneko beste ekintza batzuk” izeneko proiektuen artean, besteak beste, eskualde eta udalerr

guztiei hasiera batean esleitutako aurrekontuarekin aurrera eraman ezin izan diren “2. motakoak” biltzen ditu.

Bilboko Udalak deialdi horretan parte hartu du eta 3.967.200,92 €-ko euroko diru-laguntza baten onuradun izan da, “kontrataziorako laguntzen” ekintzetarako xedatzeko.

Bestalde, Bilboko Udalak Bilbao Ekintza EPELi agindu dio aipatutako diru-laguntzari heltzen dioten proiektuak egikaritzea, haren Gobernu Batzarrak 2019ko apirilaren 3an hori erabaki zuelako.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak onartutako araudiak ezartzen duenez, laguntza ekonomikoak oinarri arautzaile batzuen bidez banatu behar da enpresa eskatzaileen artean, publikotasun-, lehia- eta objektibotasun-printzipioak bermatuz. Betekizun hori deialdi honetan gauzatzen da, bai eta Bilboko Udalaren eta zuzenbide publikoko bere erakundeen eta entitateen deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza orokorrean ere.

Deialdiak ezartzen duen moduan, oinarri arautzaileak publiko egin aurretik, Lanbideren Laneratzea Aktibatzeke Zuzendaritzari jakinarazi behar zaizkio eta hasierako haren baimena lortu behar da. Bilbao Ekintza EPELi dagokionez, baimen hori 2019ko abuztuaren 6an eman da.

Azaldutakoan oinarrituta, Bilbao Ekintza EPELeko presidentek, 2019ko irailaren 19ko bilkuran, Bilbao Ekintzaren “kontrataziorako laguntzen” programarako 2019ko ekitaldirako deialdia onartu du.

1. XEDEA

Deialdi honen helburua Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda dauden langabeak toki-enpresek ohiko merkatuan kontratatzeke laguntza ekonomikoa ematea da.

2. ERAKUNDE ONURADUNEN BETEKIZUNAK

2.1. Lantokia eta ekonomia-jarduera Bilbo udalerriko lurralde-eremuan duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak izan ahalko dira deialdi honetan xedatutako laguntzen onuradunak.

2.2. Erakunde onuradunek betekizun hauek bete beharko dituzte:

- Administrazio publikoekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea, I. eta II. eranskinetan ezarritakoarekin bat etorritik. Bilboko Udalarekiko zerga-egoera ofizioz egiaztatu ahal izango du Bilbao Ekintza EPELe.
- Beste administrazio batetik edo erakunde publiko edo pribatuetatik diru-laguntzarik edo laguntzarik ez jasotzea eta jasota ez izatea enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako laguntzen deialdiaren esparruan kokaturiko kontratazioak formalizatzeko, Gizarte Segurantzako hobariak kanpo utzita (2019ko otsailaren 28ko ebazpena).
- Ez izatea diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galtzea dakarren zehapen penal edo administratiborik eta ez egotea sartuta horretarako desgaitzen duten legezko debekuetan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera edo Emakume eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuagatiko bereizkeria egiteagatik gertatzen direnak barne.
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako ezein egoeratan sartuta ez egotea, haien onuradun izatea lortze aldera.

Baldintza horiek onuradunek deialdi honek arautzen duen laguntza-programan parte hartzen duten denbora-tarte guztian bete beharko dira.

2.3. Erakunde onuradunei laguntza emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, bukatuta egon beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak eta haren erakunde autonomoek edo Bilboko Udalak berak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan abiarazitako edozein itzulketa- edo zehapen-prozedurak, oraindik izapidetzen ari bada.

2.4. Diru-laguntza hauen onuradun ezingo dira izan:

- Administrazio publikoak, sozietate publikoak eta haien menpeko edo haiei lotutako erakundeak.
- Enplegu-zentro bereziak, laneratze-enpresak eta, oro har, enplegu-merkatu arruntetik kanpoko edozein erakunde.
- Aldi baterako laneko enpresak, langileak aldi baterako beste enpresa batzuei lagatzeko kontratatzeari dagokionez.
- Lan Ekintza-Bilbao SAREN eta Bilbao Ekintza EPELEN aurreko deialdietan eskuratutako laguntzak behar bezala aprobetxatu ez dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak, hori berariaz adierazi bada.

3. KONTRATAZIOEN BALDINTZAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

3.1. Kontratazioen ezaugarriak

Lagunduko diren kontratazioek Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren laguntza-deialdian ezarritako baldintzak bete beharko dituzte eta haren xedearekin bat etorri beharko dute. Zehatz-mehatz, ezaugarri hauek eduki beharko dituzte:

- Kontratuen gutxienerako iraupena 3 hilabetekoa izango da eta edozein kontratazio-modalitatearen bitartez formalizatu ahalko da, prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuen bidez izan ezik, ezta bitartekotasun- eta txanda-kontratuen bidez ere. Kontratuaren iraupena zenbatzeko, aintzat hartuko dira luzapenak, baldin eta hasierako kontratuak, gutxienez, hiru hilabeteko iraupena badu eta bi kontratuen arten langileari Gizarte Segurantzatik bajarik ematen ez bazaio.
- Kontratuak lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak izan ahalko dira, kontuan hartuta azken horiek gutxienez lanaldiaren % 50ekoak izan eta gutxienez 6 hilabete iraun beharko dutela.

Diruz laguntzeko modukoak direla irizteko, kontratazioek enplegu-sorketa garbia ekarri beharko dute diruz lagunduko diren kontratuak egin zaizkien pertsona horiek lanean hasi aurreko 3 hilabeteetan enpresak zuen batez besteko plantillan.

Kalkulu horretarako, kontuan hartuko da dirulaguntza eskatzen den kontratazioaren egunean alta emanda dauden langileen batez besteko plantilla kontratazioaren egunaren aurreko hiru hilabeteetan alta-egoeran zeuden langileen batez besteko plantilla baino handiagoa izatea. Egoera hori egiaztatu ahal izateko, “Alta egoeran dauden langileen batez besteko plantillako bi txosten” entregatu beharko dira, Gizarte Segurantzak eginak: bata kontratu-egunaren aurreko hiru hilabetei dagokiena, eta bestea, dirulaguntza eskatzen den kontratazioaren egun berekoa.

Kontratazioak 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera egin beharko dira sei hilabeterako dirulaguntza duten kontratuen kasuan, eta 2019ko apirilaren 1etik aurrera hiru hilabeterako dirulaguntza duten kontratuen kasuan, eta, kasu bakoitzean, hasierako mugaren eta gehienez 2020ko ekainaren 30era arteko aldia lagunduko da diruz. Ez da oztopo izango kontratazioak eskatutako mugaz haraindi luzatzea. Hala ere, ondorengo datei dagozkien kostuak inoiz ezin izango dira diruz lagundu.

Horregatik, 6 hilabeteko iraupeneko dirulaguntza eskuratzeko aurkezten diren kontratazioek, beranduenez, 2019ko abenduaren 31n eginda egon beharko dute, eta 3 hilabetekoek, aldiz, 2020ko martxoaren 31n.

Lan-kontratuak eskatutako edo, hala denean, diruz lagundutako gutxieneko iraupenaren aurretik azkenduz gero, emandako dirulaguntza itzuli beharko da, azkentze hori enpresa kontratatzailearen borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik gertatu ezean. Kasu horretan, Gizarte Segurantzaren baja hartzen den benetako datatik 10 egun naturaleko epean egiaztatu beharko da, agirien bidez, eta dirulaguntzaren zenbatekoa kontratuaren iraupenarekiko proportzioan murriztuko da. Jasoko den dirulaguntzaren minorazio proportzionala kontratuaren gutxienezko iraupena 3 hilabetekoa bada aplikatuko da. Baldintza hori betetzen ez bada, une horretara arte jasotako dirulaguntzaren zenbatekoa itzuli beharko da.

Honako hauek jotzen dira, behintzat, enpresaren borondatearekin zerikusirik ez duen arrazoiak: probaldia ez gainditzea, lanpostua nahita uztea, bidezkotzat jotzen den kaleratzea edo kontratatutako pertsonaren heriotza edo ezintasuna.

Enpresa kontratatzaileak 15 egun natural izango ditu, Gizarte Segurantzaren baja hartzen den benetako datatik aurrera, diruz lagundutako aldiaren kontratu berri bat formalizatzeko, deialdiaren baldintzak eta laguntza eman zitzaion hasierako kontratuaren ezaugarriak

errespetatuz, baita emakume izatearen baldintza ere, hala badagokio. Diruz lagundutako denbora guztia 2020ko ekainaren 30a baino lehen betetzen ez bada, diru-laguntza gauzatutako kontratuen benetako iraupenarekiko proportzioan murriztuko da, kontuan izanda iraupen hori, gutxienez, 3 hilabetekoa izango dela.

3.2. Kontratatu beharreko pertsonen baldintzak:

Kontratatu beharreko pertsonak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a. Langabezian egon, hau da, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean eta Langile Autonomoen Araubidean langile gisa alta eman gabe egotea. Ondorio horietarako, ez da langabeziatzat jotzen aurreko kontratuen oporreatatik nork bere egindako alta-egoera.
- b. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa izena emanda egotea.
- c. Bilboko udalerrian errolatuta egotea, eta legezko egoitza bertan izatea. Ondorio horietarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak jasota duen helbidea hartuko da kontuan

Baldintza guztiak, gutxienez, kontratatu aurreko egunean bete beharko dira.

Honakoak ez dira diruz lagunduko:

- a. Kontratatu aurreko sei hilabeteetan enpresa berean zerbitzuak modu mugagabea ematen dituzten pertsonak kontratatzea.
- b. Ezkontideak, ondorengoak edo enpresaburuarekin edo enpresa-kontrola daukatenekin, zuzendaritza-karguak dituztenekin edo sozietateko forma juridikoa duten enpresetako administrazio-organoetako kideekin bigarren mailarainoko odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko harremana duten gainerako senideak kontratatzea, ezta administrazio-organoetako kideak kontratatzea ere.
- c. Enpresa batek langile bera kontratatzea aurreko deialdietan diru-laguntza jaso badu.

3.3. Laguntzen zenbatekoa

Hauek izango dira eman beharreko laguntzen gehieneko zenbatekoa eta diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- a. 3.000,00 euroko gehieneko laguntza 3 hilabeteko lanaldi osoko kontratu bakoitzeko. Laguntzaren amaierako zenbatekoak ezingo du kontratatutako pertsonaren soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzako kostuen % 75 gainditu, kontratu-amaierako kalte-ordainak eta enpresak Gizarte Segurantzari ordaindu behar dion kuota barne. Enpresaren kargura egingo da, dagozkion hobariak eta kenkariak deskontatu eta gero.
- b. 6.000,00 euroko gehieneko laguntza 6 hilabeteko edo hortik gorako lanaldi osoko kontratu bakoitzeko. Laguntzaren amaierako zenbatekoak ezingo du kontratatutako pertsonaren soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzako kostuen % 75 gainditu, kontratu-amaierako kalte-ordainak eta enpresak Gizarte Segurantzari ordaindu behar dion kuota barne. Enpresaren kargura egingo da, dagozkion hobariak eta kenkariak deskontatu eta gero.
- c. 9.000,00 euroko gehieneko laguntza 6 hilabeteko edo hortik gorako lanaldi osoko kontratu bakoitzeko, talde hauetako pertsonak kontratatzen badira:
 - o DSBEn hartzaille titularrak edo onuradunak.
 - o 35 urtetik beherako pertsonak.
 - o Luzaroan langabezian dirauten pertsonak. Iraupen luzeko langabeak dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan kontratazioaren aurreko 540 egunetan lan eskatzaile gisa izena emanda dauden pertsonak, baldin eta epe horretan gutxienez 360 egunez langabezian izan badira.
 - o 55 urtetik gorako pertsonak.

Laguntza-mota honetan, amaierako zenbatekoak ezingo du kontratatutako pertsonaren soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzako kostuen % 100 gainditu, kontratu-amaierako kalte-ordainak eta enpresak Gizarte Segurantzari ordaindu behar dion kuota barne. Enpresaren kargura egingo da, dagozkion hobariak eta kenkariak deskontatu eta gero.

- d. Lanaldi partzialeko 6 hilabeteko edo hortik gorako kontratazioetan, emandako diru-laguntza egindako lanaldiarekiko proportzionala izango da; lanaldi hori ezingo da % 50 baino gutxiagokoa izan. Laguntzaren amaierako zenbatekoak ezingo du kontratatutako pertsonen soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzako kostuen % 75 gainditu, kontratu-amaierako kalte-ordainak eta enpresak Gizarte Segurantzari ordaindu behar dion kuota barne. Enpresaren kargura egingo da, dagozkion hobariak eta kenkariak deskontatu eta gero.

Zenbateko ekonomikoak % 10ean handitu ahal izango dira kontratu horiek emakumeei eginez gero eta, lanbide horietan, gizonekin alderatuta % 50etik beherako presentzia badute. Igoera baldintza hori egiaztatzen denean emango da, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko webgunean argitaratutako informazioan oinarrituta, harik eta 12.200 euroko aurrekontua amaitzen den arte.

4. ESKAEREN AURKEZPENA ETA EMATEKO PROZEDURA

4.1. Eskaerak aurkeztea

Dirulaguntza hauek lehiaketa sinplearen erregimenaren bitartez deituko dira; beraz, eskabideak aurkezteko hurrenkeraren arabera hartuko dira kontuan, 4.3 apartatuan jasotako berezitasunekin. Prozedura interesdunek eskatuta hasiko da, adierazitako epeen barruan.

Dirulaguntzen eskabideak Bilbao Ekintza EPELeko Enpresa Sustapeneko Arloari (Enplegua eta Talentua) bidali behar zaizkio Bilbao Ekintza EPELeren webgunean dagoen plataformaren bitartez. Aurkeztu behar den dokumentazioa eta informazioa aipatutako plataformaren eskakizun teknikoen arabera egokitu beharko da.

Entitate eskatzaileak zein motatako laguntza nahi duen adierazi beharko du eskabidean, eta laguntza hori ematen ez bazaio, ezin izango du beste mota bateko laguntzarik jaso baldin eta horren eskabidea aurkeztu ez badu.

Deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unetik aurrera, 2019ko urriaren 1eko 10:00etatik 2019ko urriaren 11ko 15:00ak arte aurkeztu ahal izango dira eskabideak. Aurrekontu-partida agortzen ez bada, Bilbao Ekintzak eskabideak aurkezteko epea luzatu ahal izango du. Erabaki hori, edonola ere, Bizkaiko Aldizkari

Ofizialean argitaratuko da, bai eta hasierako deialdia argitaratzen den gainerako komunikabide edo bitarteko guztietan ere.

Aurrekontu-partida deialdi honetan jasotako kopuruetara mugatuta dagoenez, hura agortzeak eskatutako dirulaguntzak ukatzea ekarriko du, nahiz eta haiek eskaerak aurkezteko epean, aurreko paragrafoan adierazitakoan, egin, deialdi honen 4.4 ataleko azken paragrafoan jasotakoa gorabehera.

Deialdi honen izapideak arintze aldera, laguntzen eskatzaileek erabilgarria den helbide elektronikoa bat eduki beharko dute laguntza izapidetzen den bitartean, dokumentazioaren aurkezpenean antzemandako gabeziak konpontzeko jakinarazpenak jasotzeko edo eskatutako laguntzak ebatzeko behar den beste edozein errekerimendu edo komunikazio. Era berean, eskatzaileek adi egon beharko dute plataformaren bitartez egiten diren komunikazioak edo jakinarazpenak ikusteko.

4.2. Aurkeztu behar den dokumentazioa

Eskatzaileek Bilbao Ekintzaren webgunean egongo den plataformaren bitartez bete beharko dute eskabidea, eta erantzukizunpeko adierazpena gehitu, entitate eskatzaileko ordezkariak sinatuta eta zigilatuta, bai eta I. eranskinean jasotako dokumentuak ere.

Bilbao Ekintza EPELek eskaera ebaluatzeko beharrezkoa deritzon edozein agiri eskatu ahalko dio eskatzaileari. Era berean, ekintzen kontrolerako eta jarraipenerako beharrezkoak diren egiaztapenak egin ahalko ditu.

Dirulaguntzaren eskabidea ondo beteta ez badago, daturen bat falta bada edo eskatutako dokumenturen bat aurkezten ez bada, pertsona edo entitate eskatzaileari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko, eta, egiten ez badu, eskabidea artxibatuko da izapide gehiago egin gabe. Beharrezkoak diren zuzenketak egiteko epea 2019ko azaroaren 4ko 10:00etan hasi eta 2019ko azaroaren 15eko 15:00etan amaituko da.

Eskabideak onartzeko eta baloratzeko, hurrenkera kronologikoa hartuko da kontuan, eta zuzenketak ondo egiten badira oinarri hauetako atal honetan ezarritako epean, eskabidea aurkezteko hasierako data eta ordua hartuko dira aintzat eskatzaileen sarrera-hurrenkeraren erregistroa mantentzeko.

4.3. Eskabideak bideratzea eta balioestea

Deialdi honek biderapen-organo bat du, Bilbao Ekintza EPELeko Enpresa Sustapenerako Arloari atxikitako langile teknikoek osatua.

Aurkezten diren eskaerak balioespen-batzorde batek ebaluatuko ditu; lehendakaritza batek, idazkaritza batek eta kide batek osatuko dute. Enplegu eta Talentuko arduradunak hartuko du lehendakaritza, Enpleguko teknikari bat izango da kidea eta teknikari batek —bideratzailea ez dena— egingo ditu idazkaritza-lanak.

Balioespen-batzordeak aurkezten diren eskabideak balioetsiko ditu, ezarrita dauden betekizunak betetzen diren egiaztatu ostean, eta horri buruzko txosten bat egingo du.

Organoa bideratzaileak, espedientea eta balioespen-batzordearen txostena ikusirik, behin betiko ebazpen-proposamena egingo du, eta bertan diru-laguntza ematen edo ukatzen den adieraziko da.

Kontratazio guztiek emakumeen % 40ko gutxieneko ehuneko bat betetzen dutela ziurtatu behar dela kontuan hartuz, (Bilbao Ekintza EPELeren kasuan % 50era heldu behar da Bilboko Udaleko Osoko Bilkurak 2016ko otsailaren 25ean egindako bileran hartutako erabakiaren arabera, udalaren planetan emakumeen kontratazio-kuota areagotzeko xedearekin) aurkeztutako eskaerak etengabe aztertuko ditu baldintza horren betearazpen-maila egiaztatze aldera. Ez-betetzea gertatzeko arriskua badago, eta eskakizun horren betearazpena kolokan ez jartzeko, kolektibo hori kontratatzea aintzat hartzen duten eskabideak aurreratu egingo dira ebazteko lehentasun hurrenkeran eta kopuru nahikoa aurreikusten ez duten eskabideen aurrean jarriko dira, aipatutako baldintza hori, Bilbao Ekintza EPELeren ustez, bete dadin.

Horregatik, emakumeen kontratazioa aurreikusten duten eta ebatzi ostean sexu horretako pertsona bat kontratatzeko hautagaitza bat azkenean aurkezten ez duten eskaerak deuseztatu egingo dira, eta, erakunde eskatzaileak nahi badu, baldintza berriekin bat datorren beste eskaera bat aurkeztu beharko du.

Aurreikusitako gehieneko laguntzen kopurua gorabehera, azkenean eman beharreko kopurua murriztu ahalko da emakumeak kontratatzeko jasotako eskaera-kopuruaren arabera; hala, nolnahi ere, helburuak betetzen direla bermatuko da.

4.4. Ebazpena

Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritza Nagusia da prozedura ebazteko eskumena duen organoa.

Eskabidea onesteko edo baztertzeko ebazpena 2019ko abenduaren 13an jakinaraziko zaie eskatzaileei. Hori guztia, kontuan izanda datak aldatu ahal izango direla hasierako aurrekontu-partida agortzen ez bada.

Atal honetan jasotako epeak amaitu eta ebazpena jakinarazi ez bada, dirulaguntza emateko eskaera administrazio-isiltasunaren bitartez ezetsi dela ulertu ahal izango dute interesdunek. Hala ere, gehieneko epe hori igarotzeak ez du eragotziko baiezko ebazpena ematea, hala badagokio.

Erakunde eskatzaileei diru-laguntza eskaera onartu edo ukatu den jakinaraziko zaie, bai eta guztizko zenbatekoa ere, hala badagokio. Eskaeren ebazpenak jakinaraziko zaizkie eskatzaileei.

Diru-laguntza ematen edo ukatzen duen ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dio. Haren aurka Zuzendaritza Nagusian aukerako berraztertzeko errekurtsua jarri ahalko da.

Deialdi honetan jasotako aurrekontu-esleipena agortzeak nahiz Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak Bilboko Udalarari deialdi honetan jasotako ekintzak egiteko aitortutako ekintza-kopuruaren irismenak eskatutako diru-laguntza ukatzea ekarriko dute, hura egin bitartean bajaren bat balego izan ezik. Kasu horretan, emandako azken laguntza-eskaera abiapuntu hartuta, sartzeko hurrenkerari jarraituko zaio, laguntza-mota errespetatuz.

4.5. Diru-laguntzaren onarpena eta langilearen kontratazioa

Entitate onuradunek dirulaguntza onartzen duten jakinarazi beharko dute 2019ko abenduaren 16ko 10:00ak eta 2019ko abenduaren 20ko 15:00ak bitartean, eta helbide honetara bidali beharko dute onartzeko eredu egokia: ayudascontratacion@bilbaoekintza.bilbao.eus. Zehazten den epean berriaz onartzen ez bada, ematen den dirulaguntza ukatutzat joko da.

Gainera, aldeko ebazpena jakinarazi ostean, baldin eta kontratazioa hasteko epemuga gainditzen ez bada, erakunde onuradunak 35 egun natural izango ditu kontratazioa gauzatzeko, eta, bideragarria ez bada (inguruabar hori behar bezala justifikatu behar da), kontratazioa hasteko epe hori zabaltzeko aukera balioetsi ahalko da.

Enpresak II. eranskinean ageri den dokumentazioa, adierazitako epeetan kontratatutako edo kontratatu beharreko pertsonari buruzkoa, aurkeztu beharko du. Dokumentazio hori egiaztatutakoan, baldintza edo betekizunen bat betetzen ez bada, Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritzak emandako ebazpena ezereztuko du.

Laguntza kolektibo bateko pertsona bat kontratatuzeko eskatu bada (9.000,00 euroko laguntza) eta baldintza hori bete ez bada, Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritzak laguntza ezereztu egingo du.

Eskabidearen baldintzak hasiera-hasieratik bete beharko dira, bai eta diruz lagundutako aldi osoan ere. Hori dela eta, jardunaldi osoan kontratatuzeko dirulaguntza eskatu eta lanaldi partzialari dagokion dokumentazio aurkezten bada, dirulaguntzaren eskubidea galdu ahal izango da. Alderantziz egiten bada, laguntza indarrean egongo da, baina jasoko den gehieneko laguntza lanaldi partzialeko kontratazio baterako dirulaguntzaren eskaerari dagokiona izango da.

Gainera, diruz lagundutako epeak iraun bitartean, ez da lanaldian aldaketarik onartuko salbu eta lanaldi partzialetik lanaldi osora aldatzen bada edo lanaldiaren ehuneko handiago batera aldatzen bada. Beti jasoko da hasieran emandako dirulaguntza.

4.6. Ordaintzeko prozedura eta justifikazioa

Oro har, diru-laguntza bi alditan ordainduko da, II. eranskinean jasotako moduan, hor eskatutako dokumentazioa ezarritako epeetan eta moduan aurkeztu eta egiaztatu ondoren.

Fase bakoitzean ezarritako epeak igarotzen direnean dokumentaziorik aurkeztu ez bada, Bilbao Ekintza EPELek eskubidea gordeko du emandako diru-laguntzaren laguntza deuseztatzeko eta, hala badagokio, entitate onuradunak emandako diru-laguntzaren kopuru osoa itzuli beharko du eta ordaintzeke dauden zenbatekoak jasotzeko eskubidea galduko du.

Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritza Nagusiak ordainketak idatz-zati honetan adierazitakoa ez den beste modu batean egitea erabaki ahalko du, uste badu, dauden inguruabarrak ikusita, sistema berriak laguntzen kudeaketa errazten duela. Ondorio horietarako, dirulaguntza ematen den unean dagoeneko amaituta dauden kontratazioen kasuan, Bilbao Ekintza EPELek eskubidea izango du kontratazioaren eta azken ordainketaren dokumentazioa aldi berean eskatzeko, eta ordainketa bakarra egiteko.

Ordainketak eraginkorrak izateko, Bilbao Ekintza EPELek Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak aitortutako funtsak jaso beharko ditu.

Nolanahi ere, Bilbao Ekintza EPELek Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuari proiektuaren justifikazio osoa aurkeztu ondoren horrek erabakitzen badu diruz lagundutako kopuruak osorik edo neurri batean itzultzea, Bilbao Ekintza EPELek erakunde onuradunari eskatu ahalko dio itzuli beharreko kopurua, baldin eta itzulketa erakunde horri egotz dakizkikeen ez-betetzeen ondoriozkoa bada.

4.7. Diru-laguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna

Deialdi honetan xedatutako diru-laguntzak bateraezinak izango dira kontzeptu eta helburu berberengatik beste administrazio edo erakunde publiko batzuek ematen duten beste edozein diru-laguntza edo laguntza lortzearekin, Gizarte Segurantzak ematen dituen hobariak izan ezik.

5. BETEBEHARRAK, EZ-BETETZEA ETA LAGUNTZEN ITZULKETA

5.1. Betebeharrak

Hauek dira erakunde onuradunen betebeharrak:

- Bilbao Ekintza EPELeren aurrean justifikatzea betekizunak eta baldintzak betetzen dituztela, jarduera egin dutela eta diru-laguntza ematearen edo erabiltzearen helburua bete dutela.
- Bilbao Ekintza EPELek egin ditzakeen egiaztapen-jarduketei men egitea. Era berean, erakunde onuradunek men egin beharko diete kontrol-organo eskudunek, bai naziokoek bai erkidegokoek, egin ditzaketen egiaztapen- eta finantza-

kontroleko jarduera guztiei. Horretarako, aipatutako jarduketak egitean eskatzen zaien informazio guztia aurkeztu beharko dute.

- Bilbao Ekintza EPELeri jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzen dituzten bestelako diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk eskuratu izana. Horien guztien berri jakin eta berehala egingo da jakinarazpena eta, nolana ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzea egunean dutela egiaztatzea, diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen.
- Kontabilitate-liburuak, bideratutako erregistroak eta gainerako dokumentuak behar bezala ikuskaturik izatea, merkataritzako legeriak eta kasu bakoitzean onuradunari aplikatu dakioken sektoreko legeriak eskatzen dutenaren arabera. Horrez gain, Bilbao Ekintza EPELek eskatzen dituen kontabilitateko egoera-orriak eta berariazko erregistro guztiak izango dituzte, egiaztatzeko eta kontrolatzeko ahalmenak egokiro erabiltzea bermatzeko helburuarekin guztiok ere.
- Jasotzen diren funtsak aplikatzeko egiaztagiria gordetzea, agiri elektronikoak barne, agiri horiek guztiak egiaztatu eta kontrolatu ahal direlako.
- Egindako ekintzen finantzaketa zabaltea, erabilitako euskarrietan Bilbao Ekintza EPELeren logotipo ofiziala txertatuz, bai eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarena ere, bi hizkuntza ofizialetan (euskara eta gaztelania), jardueren publizitateko elementu gisa egiten diren kartel, testu eta dokumentuetan. Era berean, diru-laguntzaren xede den jarduera sustatzeko esku-hartze publikoak eta, hala badagokio, megafoniaz ematen diren mezuak elebidunak izango dira, euskara eta gaztelania ordena horretan erabiliz.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan azaltzen diren kasuetan jasotzen diren funtsak itzultzea.
- Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2019ko otsailaren 28ko ebazpenean eta oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzea.
- Fiskalizazio-funtzioak betetzean eskatzen zaien informazioa ematea Bilbao Ekintza EPELeri, laguntza honen kontura jasotako diru-laguntzei buruz.

- Hasierako baldintzen edozein aldaketa edo kontratazioaren ondoren sortzen den edozein arazo jakinaraztea unean-unean.
- Bilbao Ekintza EPELerekin lan egitea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2019ko otsailaren 28ko Ebazpenean adierazitako kontrataziorako laguntzen onuraduna izateagatik (hasieran zein ondoren) eskatu ahal zaizkion betebeharrak guztiak betetzeko.
- Gainera, Bilbao Ekintza EPELek diruz lagundutako proiektuari buruz egoki irizten diren ikuskarpen guztiak egin ahalko ditu.

5.2. Ez-betetzea eta laguntzak itzultzea

Aurreko atalean deskribatutako betebeharrak bat betetzen ez bada, Bilbao Ekintza EPELek eskubidea izango du emandako diru-laguntza deuseztatzeko eta ordaindutako zenbatekoak itzultzeko eskatzeko, hala badagokio.

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotako kasuetan, bidezkoa izango da jasotako kopuruak itzultzea eta diru-laguntza ordaindu den unetik diru-laguntza itzuli behar dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesak eskatzea.

Itzultzeko prozedura izapidetzean, entitate onuradunaren entzunaldi-eskubidea errespetatuko da; horren ondoren, entitatearen sail teknikoak horren gaineko txostena emango du. Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiak emango du itzultzeko betebeharrak gaineko ebazpena, eta erakunde onuradunari jakinaraziko zaio.

Entitate onuradunaren betetzea erabateko betetzera nabarmen hurbiltzen denean eta hark zalantzarik gabe bere konpromisoak betetzea xede zuen jarduketara egin duela egiaztatzen duenean, diruz laguntzen den jardueraren betetze-kopuruak edo betetze-mailak zehaztuko du itzuli beharreko zenbatekoa, proportzionaltasun-printzipioa errespetatuz.

6. ONURADUNEI BURUZKO INFORMAZIOAREN KONFIDENTZIALTASUNA

Bilbao Ekintza EPELek hartzen duen konpromisoaren arabera, haren jarduketa-programetan jarduten duten langileak programa horietako onuradunei buruzko edozein informazioaren jakitun suertatzen badira, informazio hori programaren xedeak burutzeko baino ez dute erabiliko. Horrexegatik, hain zuzen ere, programak garatze aldera kanpoko aholkularien lana beharrezkoa denean, Bilbao Ekintza EPELek konfidentzialtasun-konpromisoa eskatuko die zereginak direla medio ezagutu dezaketen informazioaren tratamenduari dagokionez.

7. AURREKONTU-ESLEIPENA

Bilbao Ekintza EPELek deialdi honetan jasotako laguntza ekonomikoetarako 3.967.200,92 € xedatuko ditu.

Kopuru hori 640 proiekturen zenbatespenarekin bat dator, jarraian ezarritako zerrendaren arabera (bertan, aurrekontu-zuzkidura adierazi da):

- 3 hilabeteko lanaldi osoko lan-kontratuak. 180.000 €. (60 kontratu).
- 6 hilabeteko edo gehiagoko lanaldi osoko lan-kontratuak. 1.800.000 €. (300 kontratu).
- Lanaldi partzialeko lan-kontratuak, gutxienez % 50eko lanaldia dutenak, eta lanaldiarekiko proportzionala den laguntza, 6 hilabetez. 400.000,92 €. (105 kontratu gutxi gorabehera).
- 6 hilabeteko edo gehiagoko lanaldi osoko lan kontratuak, DSBEren hartzaille titularren edo onuradunen, 35 urtetik beherako pertsonen, iraupen luzeko langabeen (Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda daudenak kontratazioaren aurreko 540 egunetan, baldin eta epe horretan 360 egunez gutxienez egon badira langabezian) eta 55 urtetik gorako kolektiboetako pertsonak kontratatzeak. 1.575.000 € (175 kontratu).

- Diru-laguntzaren zenbatekoa % 10 handituko da, 12.200 euroko aurrekontua amaitu arte, aurreko kontratuak emakumeei eginez gero, lanbide-eremu horietan % 50etik beherako presentzia badute gizonenari dagokionez.

8. PROGRAMAREN INDARRALDIA ETA GARAPENA

Laguntza-planaren deialdia 4.1 puntuan ezarritako epean aurkezten diren eskaerei aplikatuko zaie. Baldin eta programa indarrean egon bitartean beharrezkoa bada haren alderdietako bat garatzea edo programaren muina aldaraziko ez duen egokitzapenen bat egitea, bereziki Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako jarraibideen ondoriozko alderdiak sartzeari dagokionez, Administrazio Kontseiluak Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritza gaitzen du aldaketa horiek egin ditzan; horien berri eman beharko dio Kontseiluari aldaketen erabakia hartu ondoren egiten den lehenbiziko bileran. Ondorengo informazio hori ez da beharrezkoa izango, esaterako, laugarren oinarrian ezarritako eskabideak aurkezteko sistemari dagozkion neurri operatiboak hartu behar diren kasuetan.

Zehazki eta eraginkortasun-arrazoiengatik, Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiak gaitasuna izango du eskabideen epea luzatzeari buruz ebazteko, baldin eta aurrekontu-kontsignazioa agortzeko arriskua badago, deialdiaren 4.1. apartatuan xedatutakoaren arabera.

9. DATU PERTSONALEN BABESA

Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat etorriz, Bilbao Ekintza EPELek adierazten du oinarri hauek izapidetzearen ondorioz agirietan jasota geratzen diren datu pertsonalak berriazko fitxategi batean gordeko direla. Fitxategia Bilbao Ekintza EPELen titulartasuneko izango da eta Enpresak Sustatzeko Sailak ematen dituen zerbitzuak kudeatzea du helburu. Helbidea hau da: Nafarroa kaleko 5. zenbakia. 48001 – Bilbo.

Nolanahi ere, interesduna horren jakitun geratzen da eta baimena ematen du haren datuak helburu horretarako erabil daitezela eta aholkularitza-enpresei, erakunde publikoei, fundazioei, elkartei edo finantza-erakundeei laga dakizkien, enplegu-politika

aktiboak kudeatzeko, lan-merkatuko bitartekari jarduteko eta lan-merkatuari buruzko azterketak eta analisiak egiteko.

10. ERAKUNDE ONURADUNAK DIRU-LAGUNTZARI BURUZKO PUBLIZITATEA EGITEA

Erakunde onuradunek berariaz agerrarazi beharko dute Bilbao Ekintza EPELeren eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren babesa deialdi honen barruan finantzatutako jarduera guztietan, horiek hedatu, zabaldu edo, hala badagokio, argitaratzean.

Diruz lagundutako jardueraren izaerak ez badu ekartzen hedapen-, zabalkunde- edo argitaratze-ekintzak egiterik, orduan logotipo horiek ez dira diruz lagundutako enpresaren beste dokumentu batzuetan jasoko, Bilbao Ekintza EPELeren eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren lankidetzaren irismenari dagokionez nahasmendu edo akatsik ez eragiteko.

11. EMANDAKO DIRU-LAGUNTZEN PUBLIZITATEA

Diru-laguntzen arloan indarrean dagoen arautegia betetzeko, Bilbao Ekintza EPELek bere webgunean eta aldizkari ofizial egokietan argitaratuko ditu ematen diren diru-laguntzak.

12. PROIEKTUAK GARATZEKO BALDINTZAK

Diruz laguntzen diren proiektuak garatze aldera, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Giza eskubideen adierazpen unibertsalean xedatutakoa ezingo dute urratu.
- b) Emakumeen eta gizonen benetako berdintasunarekiko konpromisoa izango dute eta emakumeen partaidetza aktiboa sustatuko dute.
- c) Hizkuntza inklusiboa erabiliko dute generoari dagokionez.
- d) Ez dira bereizkeriazkoak izango sexu, jatorri geografiko, kultura, adin, genero, nortasun, sexu-praktika eta abarreatatik.
- e) Ingurumen-jasangarritasuna sustatuko dute.

- f) Zabaltzean eta gauzatzean, ahal bada, euskara eta gaztelania erabiliko dituzte; nolahi ere, proiektuen eremuak hala eskatzen duenean, beste hizkuntza batzuk erabili ahalko dira.

13. ARAUBIDE JURIDIKOA

Deialdi honetan aurreikusi gabeko alderdi guztietarako eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2019ko otsailaren 28ko ebazpenean (haren bidez, argitara ematen da enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2019ko diru-laguntzen deialdia) aurreikusten ez direnetarako, xedapen hauek aplikatuko dira: Bilboko Udalaren eta zuzenbide publikoko bere erakundeen eta entitateen deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza orokorra (138. BAO, 2016ko uztailaren 20koa), diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta haren araudia, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartua, baita administrazio-prozedura erkidearen 39/2015 Legea ere, gehigarri moduan.

Ordenantzak azaroaren 26ko 30/1992 Legea aipatzen badu, honako lege hauen aipamentzat joko da: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea.